




## Afiliazioa %1,6 hazi zen urrian urte arteko tasan

### Gizarte Segurantzako afiliazioa Urte bakoitzeko urria. Mila




Iturria: Gizarte Segurantza.

Gizarte Segurantzako afiliazioak gora egiten jarraitzen du, erritmo onean. **Urrian, urte arteko hazkundea %1,6 izan zen.** Emakumeen afiliazioa %1,9 hazi zen, eta gizonena, berriz, %1,4. Industriak (%1,2) pixka bat bizkortu zuen aldakuntza tasa, eta eraikuntzak (%1,4) eta zerbitzuek (%2,0) iraileko datuak errepikatu zituzten.

## Langabezia erregistratua %5,6 gutxitu zen urrian

### EAEen erregistratutako langabezia Urte bakoitzeko urria. Mila



Iturria: SEPE.


**Urrian, Lanbideko bulegoetan izena emanda zeuden pertsonen kopurua %5,6 murriztu zen aurreko urtearen aldean.** Guztira, 112.000 langabe baino gutxiago zeuden erregistratuta, azken hamalau urteetako urrian jaso den kopururik txikiena. Langabezia %4,0 murriztu zen emakumeen artean eta %7,8, berriz, gizonen artean.



## Industriako ekoizpena %3,7 areagotu zen irailean

### Industria produkzioaren indizea (IPI)

Urte bakoitzeko iraila. Indizea



Iturria: Eustat.


Eustaten arabera, irailean EAEko industria produkzioa %3,7 hazi zen aurreko urtearen aldean.

Gehikuntza tasa bereziki nabarmena izan zen energiaren sektorean (%15,0), baina esanguratsua da ekipamenduko ondasunen aldakuntza tasa ere (%6,9). Aitzitik, kontsumo iraunkorreko ondasunek ekoizpena murriztu zuten (-%8,4).

## Euroguneko langabezia tasa %6,6ra jaitsi da

### Euroguneko langabezia tasa

Ehuneko



Iturria: Eurostat.

Irailean, euroguneko langabezia tasa hamarren bat apaldu zen eta %6,6ra jaitsi. Serie historiko osoan, 1998an hasi baitzen, ez da tasa txikiagorik aurkitzen. Une honetan, euroaren eremuan hamaika milioi pertsona baino gutxiago daude langabezian, 2021eko irailean zeudenak baino milioi bat gutxiago.